

KOSTUEN EGITURA



Gure enpresaren kostu egitura hilabetero egin dugu; izan ere, hilabete bakoitzean hainbat gauza aldatzen dijoaz. Horrez gain, urtarilean gure aplikazioa sortu dugunez, kostuak askoz handiagoak dira. Gero, hilabeteak pasatzen dijoaztenean, kostuak murrizten joaten dira.



Gainera, kostuen analisia egin dugu, hau da, gure kostuak zeintzuk eta zenbatekoak izango diren kalkulatu dugu. Kostuen egitura egin ondoren, gure kostuak hauek direla dakigu: alde batetik, kostu aldakorak; bertan, aplikazioa mantentzeko kostuak, gure aplikazioa ezagutarazteko egiten diguten publizitatea, garraioak eta Google Play eta App Store-ri ordaintzen diegun komisioak daude. Horiek guztiak aldakorak dira; izan ere, hitzaldi kopuruen arabera, hilabetearen arabera... aldatzen joaten dira. Adibidez: hilabete batean hitzaldi gehiago egiten baditugu, garraioari dagokionez, gehiago ordaindu beharko dugu.

Beste aldetik, kostu finkoak ditugu. Alokairua eta soldatak dira kostu adierazgarrienak kasu honetan. Baina beste kostuak ere baditugu, hala nola, aseguruak, bulegoko materiala, elektrizitatea... Excel-en adierazi dugun moduan. Kostu horiek egiten dugunaren arabera ez dira aldatzen.